

IDIAZABAL GORROTXATEGI, Itziar

Euskal Filologiako irakaslea
EHUko Filologia, Geografia eta Historiako Fakultatea
Unibertsitatearen pasealekua, 5
01006 Gasteiz
fvpidgoi@vc.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 83-84]



Hiru hitzaldik osatu dute Hezkuntzari buruzko arlo hau. Lehenengoa, Mikel Zalbidek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara zerbitzuburuak eman du.

Izenburua: *Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-normalkuntza. Hizkuntza-ereduen ebaluazioa eta etorkizuneko garapena.*

Hezkuntza sisteman Euskararen Normalkuntzarako Legearen eragina guztiz erabakiorra izan dela frogatu du, hamazazpi urte hauetan eta lehenago ere sistema osoaren euskalduntze prozesuan egindako ekintzen azterketa sakon baten bitartez.

Irakaskuntza ereduak diseinatu lehenengo eta geroago nola ezarri diren azaldu du batetik. Prozesu konplexu horren ardatz nagusia izan den irakasleen prestakuntza-ekimenaren datu esanguratsuak eskaini ditu. Materialen euskalduntzeak ere ahalegin handiak eskatu ditu eta oraindik ere erdarazkoen konpetentzia gure alde aprobetxatzen zeregin handia dagoela azpimarratzen da. Beste arlo oso garrantzitsua eskolen eta ikasleen inguruaren euskalduntzeak betetzen du. NOLEGA (NOrmalizazio LEgeraren GARapena) programaren barruan hainbat ekimen bideratu dira: Barnetegiak, ikastetxe eta ikasle trukaketak, lehiaketak, ... Azken urteotako egitasmo garrantzitsua, aipatu programaren jarraipena izan daitekeena, ikastetxe osorako normalizazio plan berezituak bideratzea izan da. Dinamika osagarria ekarri du programa berri honek hainbat ikastetxetara, pribatu zein publikoetara. Kontuan izan borondatez, ikastetxeak hala nahi izanda alegia, bideratzen dela ekimen osagarri hau.

Nolanahi ere, hitzaldiaren atal garrantzitsuena ikasteredu elebidunen ebaluaketarena izan da, bereziki gaztelania eta

euskararen eskuratzea aztertuz. Ikasteredu elebidunen legeztatzearekin batera, 1983. urtean hasi zen EIFE ebaluaketa programa. EIFE-HINE ebaluaketak guztiz erabakiorrak izan dira arrazoi askorengatik: batetik, eta gaztelaniaren lorpenari dagokionez, euskarazko irakaskuntzek, B nahiz D ereduak, ez dutela gaztelaniaren lorpenik oztopatzen frogatu da garbi. Emaiza hau berdina izan da beste lekuetan ere, Canadian adibidez, antzeko programak neurtu direnean. Euskararen eskuratzeari dagokionez aldiz, emaitzak ez dira hain garbiak: giro euskaldunetako ikasleek duintasun maila onak lortzen dituzte eta badira etxetik euskaldun ez izan arren euskara eskola-hizkuntza izan dutelako hizkuntza-maila oso egokietara heltzen direnak ere. Nolanahi ere, euskarazko gaitasun lorpenak oso ezberdinak dira giroaren eta ereduaren arabera, norbanakoaren gaitasunak ahaztu gabe.

Irakas-sistemaren euskalduntzearen bilakaera eta bereziki ikasteredu elebidunen haritik begiraturaz, euskararen presentziaren etengabeko aurrerakuntza oso nabarmena da urtez urte, eta orain arte, etenik gabekoa. Bilakaera hau horrela mantenduko denaren segurtasunik ez badago ere, eta arazoak ezkutatu gabe, ez da hain ezkor agertu Mikel Zalbide, behinik behin, orain hamazazpi urteko egoerara itzultzeko arriskurik ez dagoelako.

Bigarren hitzaldia, Ander Bergarak emana, *Euskal Herriko Unibertsitateen hizkuntza-ereduak* izenburua daramana izan zen. Berriki egindako ikerketa baten emaitzak aurkezten dira bertan. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru unibertsitateek, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea, elebitasuna nola garatu duten aztertzen da. Hori egiteko, ondoko eskema jarraitzen duen galdekizun baten bitartez lortu dira

datuak: 1) Hizkuntzen gaineko arauketa unibertsitate-estatutuetan, 2) Hizkuntza normalkuntzarako egiturak, 3) Hizkuntza normalkuntzarako plangintza, 4) Ikasleak, 5) Irakasleak, 6) Euskarazko irakas eskaintza eta 7) Doktore tesiak, testu liburuak eta bestelako argitalpenak.

Unibertsitate bakoitzaren normalkuntzarako plangintza eta lorpenak ere ezberdinak izanik eta eskaintzarik oparoena UPV-EHUrena izan arren, ondorio interesgarri bat ateratzen da lan honetatik, kasu guztietarako baliagarria dena. Ikasle euskaldun guztiek ez dutela euskarazko ikasketarik aukeratzen, edo bestela esateko, euskaraz ikasketak egiten dituzten ikasleak baino bezero posible gehiago daudela euskarazko unibertsitatearentzat. Eta joera hori ez da beti gertatzen euskarazko aukerarik ez dagoelako.

Erdarazko ikasketetara jotzearen arrazoiak bilatzen ere ahalegintzen da Bergara jauna eta horien artean hauek iruditzen zaizkigu pisuzkoenak: ikasketa batzuetan euskarazko eskaintza doia ez dagoelako, alegia ikasgai batzuk bakarrik ematen direlako, lehenengo urteetan bakarrik, sarritan. Bestalde, ikasketek bideratzen duten lan mundua, gaurkoz behintzat, erderaz gauzatzen delako eta gaztelera beharrezkoago nabaritzen dutelako ikasleek. Joera honen alde jokatzeko du baita ere, erdarazko irakaskuntza eskaintza (irakasleen gaitasuna) euskarazkoa baino hobea izango denaren aurreiritzi edo susmoak; azkenik, ezin ahaztu ezta ere, ikas-materialen erdarazko eskaintza, liburuak alegia, askoz ere ugariagoa dela euskarazkoa baino.

Euskarazko irakas eskaintza zabalduta eta sendotu beharra azpimarratzen du azkenik Ander Bergarak, beti ere kalitatea ezinbesteko baldintza gisa ezarritik.

Hirugarren hitzaldia Andoni Barreñak, Salamancako Unibertsitatean Euskal Filologiako irakasle denak eskaini du honako izenburuarekin: *Hizkuntzaren kalitatea irakaskuntza sisteman.*

Andoni Barreñak unibertsitatea ez ezik unibertsitate aurreko egoera ere ongi ezagutzen du. Durangaldeko ikastola eta institutoan urte askoz irakasle izana baita. Barreñaren mezua, euskararen kalitate eza aldarrikatzen den honetan, itxaropentsu edo ez hain ezkor agertu da. Normatibak malgutasunez erabili beharra, gazteen hizkerari arreta eta beren lekua eskaini beharra, euskalkien presentzia ere gehiago zaindu beharra, izan dira azpimarratu dituen hasierako mezuak. Bestalde, ikasten ari direnei, horixe, ikasten ari denaren lekua, ez gehiago —ez dira ikasi behar dutenen ereduak ez eta jatorrizko euskaldunak— baina ezta gutxiago ere, aitortu beharra gogoratu du. Hain zuzen, landu diren edo

kasu bakoitzean beharrezko diren trebetasunen baitan eskatu beharra: irakurtzen jakitea eta idazten jakitea ez dira gauza bera.

Euskararen kalitateaz gain, hezkuntza beraren kalitateaz ere mintzo da Andoni Barreña. Euskal Hezkuntza sisteman nabarmenki hobetu dira hezkuntzaren hainbat arlo euskara eta euskalduntzea direla medio: ikasleak berak dira, hasteko, hobeto prestaturik irtetzen direnak, elebidun bihurtzeko aukera izaten baitute; irakasleek ere sistemaren elebiduntzea dela eta, etengabeko prestakuntza gorpulean sartu behar izan dute; gurasoetan ere ereduak aukeratu beharrak berak seme-alaben heziketan partehartze estuagoa ekarri du eskolaren euskalduntzeak. Heziketaren hobetzea adierazten duten beste hainbat parametro ere aipatu ditu atal honetan.

Bukatzeko, zenbait proposamen luzatzen ditu euskalgintzan eta hezkuntzan zeresana duten hainbat erakunderi begira. Bat aipatzearren, Unibertsitateari eta bere ikasketa planei luzatzen zaiena da: bigarren heziketaren ardura duten lizentziatuei irakasle izateko prestakuntzan, didaktikan alegia, hobeto edo gutxieneko baldintza batzuk behintzat segurtatu beharra. Izan ere, lehen heziketan ez ezik, bigarrenean ere ez da nahikoa irakasgaia jakitea, nola irakatsi jakiteak ezinbesteko garrantzia baitu ikaste prozesuan, euskararenean eta gainerako guztietan.